

Emakumeen aurkako indarkeriaren analisi feminista baterako oinarri teorikoak eta elementu metodologikoak

Tania Martínez Portugal

Genero eta Ikasketa Feministetan doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatea

Heteropatriarkatuak genero-indarkeriei edo indarkeria matxistei buruz ezagutza sortzeko eta diskurtsoak eratzeko darabiltzan moduei eta prozesuei (epistemologia heteropatriarkalak) aurre egite aldera, erresistentzia feministak lan eskerga egin du esanahi eta interpretazio-marko berriak eratzten. Prozesu horren ekarpen gisa, emakumeen aurkako indarkeriaren analisi feministarekin bat datorren proposamen metodologikoa partekatuko da artikulu honetan. Fenomenoaren analisitik eratorritako berrikuspen teorikoaren eta hausnarketa epistemologikoaren fruitu da, eta oinarri ditu Euskal Herriko komunitate ekintzaileetan indarkeria gainditu duten emakume ekintzaileen hamar narratiba.

GAKO-HITZAK: Epistemologia feministak · Metodologia · Emakumeen aurkako indarkeria.

Theoretical foundations and methodological elements for a feminist analysis of violence against women

Against the forms and processes through which heteropatriarchy creates knowledge and constructs discourses around gender violence or machista violence (heteropatriarchal epistemologies), the feminist resistance has worked tirelessly in the construction of new frameworks and interpretations. As a contribution to this process, this article aims to share a methodological proposal consistent with a feminist analysis of violence against women. As a result of the theoretical review and epistemological reflection that emerges from a research of the phenomenon in the activist communities of the Basque Country, the proposal is sustained on the analysis of ten narratives of women activists who have survived violence.

KEY WORDS: Feminist Epistemologies · Methodology · Violence against women.

1. Sarrera¹

Erresistentzia feministaren zereginetako bat pentsaera heteropatriarkalak eratutako gizarte-imaginarioak eraldatzea da². Helburu du maskulino unibertsalei aurre egitea eta emakumeen esperientzia iturri epistemikotzat aldarrikatzea, gizarte-fenomenoei —bereziki, genero-harremanetan izaten diren askotariko zapalkuntza-ereduekin zerikusia dutenei— esanahia emateko eta horiek aztertzeko.

Emakumeen aurkako indarkeriatzat zer hartzen den eta zer ez xedatzen duen bertsio ofizial bat badela argitara ateratzen lagundu du teoria feministak, eta kritikatu ere egin du narrazio hori (Kelly, 1988; Hume, 2008; Cardona Curcó, 2015). «Bertsio ofizial» horrek indarkeria-adierazpenak nola hautematen eta barneratzen diren ere baldintzatzen du, eta horiek jasaten eta eragiten dituzten pertsoneri buruzko estereotipoak sortzen ditu.

Artikulu honek eta oinarri duen ikerlanak³ xede dute ikuspegi politiko kritikotik emakumeen aurkako indarkeria aztertzen laguntzea. Horretarako, proposamen metodologiko bat partekatuko dugu, helburu dituen indarkeria horren izaera sistemikoa eta egiturazkoa azpimarratzea, epistemologia feministen oinarriekin bat datorren ezagutza sortzea eta begirunetsua izatea, ikerketak abiapuntu duen komunitatearekin.

Proposamenak akademiako eta akademiak kanpoko egile feministek garatutako ekarpenetako asko biltzen ditu, horiek gabe gure lan hau pentsaezina bailitzateke. Dena den, formulazio orokorraren eta ekarpen horiei buruzko bana-banako gogoeten iturburua bizipen enpiriko jakin bat da; hau da, Euskal Herriko komunitate ekintzaileetako indarkeria sexistaren analisia, ekoizpen narratiboen teknikaren bidez egina. Eraitza gisa, narratiba horien zenbait pasarte partekatuko ditugu, horien azalpen-funtzioa baliagarria den kasuetan.

2. Oinarri teorikoak eta elementu teoriko-metodologikoak

Indarkeria sexistari buruzko diskurtsoa itxuratzen duten zenbait oinarri azaldu nahi nituzke, bai eta bereizi ere, batetik, diskurtso hegemoniko/heteropatriarkalean azaltzen direnak, eta bestetik, diskurtso eta teoria feministak bere egiten dituenak.

1. Artikulu hau 2020an *Investigaciones Feministas* aldizkarian argitaratutako «Haciendo frente a las epistemologías heteropatriarcales: elementos teórico-metodológicos para un análisis feminista de la violencia contra las mujeres» artikuluaren egokitzapena da.

2. Chris Corrin-ek (1996) «erresistentzia feminista» kontzeptua erabiltzen duenean, jarduera multzo bati buruz ari da, eta ikerketa eta teorizazio feminista, laguntza gizarte-zerbitzuak eta askotariko ekintzailetza moduak barne hartzen ditu (Morgan eta Björket, 2006). Esku artean dugun lanean, kontzeptua erabiliko dugu hainbat eremutan dauden eta dabilzan feministek burututako esfortzu eta borroka komunak aipatzeko; ez, ordea, talde homogeneoa direla adierazteko, edo espazio horietako bakoitza ezaugarritzen eta zeharkatzen duten egiturazko berezitasunak ikusezintzeko.

3. Ikusi *Narrativas de mujeres sobre violencia sexista en las comunidades activistas del País Vasco* doktore-tesia. Hemen eskuragai: <<http://hdl.handle.net/10810/32607>>.

1. taula. Oinarri teorikoen eta elementu teoriko-metodologikoen laburpena.

Diskurtso heteropatriarkala	Diskurtso feminista	Elementu teoriko-metodologikoak
<ul style="list-style-type: none"> – Desbideratzeak, ekintza puntualak. – Baztertze-logika eta definizio zurruna. – Erasoa izan denaren biktimizazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> – Fenomeno sistemikoa, egiturazkoa eta instrumentala. – Inklusio-logika eta definizio malgua. – Indarkeria sexista gizonezkoen boterearekiko emakumeen erresistentziaren testuinguruan kokatzea. 	– Teoria garatzeko orduan, emakumeen ahotsak erdigunean jartzea.
		– Indarkeria sexista «genero-indarkerien paradigma»ren edo indarkeria matxisten testuinguruan kokatzea.
		– Agentzia aintzatestea eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeen erresistentzia-adierazpenak identifikatzea.
		– Beste zapalkuntza-ardatz batzuekiko interseksionaltasuna kontuan hartzea.
		– Indarkeria continuum eta prozesu gisa kontzeptualizatzea.
		– Fenomenora diziplinarteko hurbilketa egitea.

Iturria: Egileak egina, hainbat iturri oinarri hartuta.

Lehenik eta behin, indarkeria *gertakari puntual eta isolatu* gisa hartzen duen ikuspegiaren aurka, teoria eta ekintza feministek borroka egin dute haren izaera sistemikoa eta egiturazkoa dela aldarrikatzeko. Rebeca Dobash-ek eta Russel Dobash-ek (1998) agerian jarri dute, indarkeria gizarte-desbideratsetzat joko bagenu, gizarte-harremanetan iraunkorra den eta behin eta berriro agertzen den osagaitzat beharrean, ez genukeela zertan kezkatu indarkeriaren ezkutuko agerpen moduez, nahikoa litzatekeela «desbideratzeez» arduratzea. Hori horrela, funtsezkoa da indarkeria sexista eta genero-indarkeriak edo matxistak botere-harremanen sistema batean kokatzea, fenomenoaren askotariko ertzak identifikatzeko eta ulertzeko (Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxaren Plataforma, 2013).

Rachell Pain (2014) geografo feministak indarkeriari «eguneroko terrorismo» esaten dionean, haren egiturazkotasuna aipatzen ari da (*everyday terrorism*), eta iradokitzen du indarkeria ez dela soilik sistema heteropatriarkalaren emaitza; aitzitik, sistema heteropatriarkalaren beraren sortzaile ere badela. Horrek ez du esan nahi birsortze hori leku guztietan berdina denik edo historiaren joanean aldatu ez denik; alderantziz, ariketa dialogiko eta dinamiko baten ondorio da, kultura eta gizarte bakoitzaren berezko ezaugarri bereizgarriei lotuta dagoena, eta haien egitura, erakunde eta banakoetan azaleratzen dena.

Indarkeria gizarte-eraketa historiko moduan behatzeak une eta/edo leku jakin batek fenomenoari nola eragiten dion kontuan hartzea esan nahi du. Horrela, *indarkeriari* eman dakizkiokeen interpretazioak biderkatu egiten dira, eta haren testuinguru-alderdia jartzen da agerian (Dobash & Dobash, 1998). *Indarkeria* produktu kulturaltzat hartzeak haren izaera erlatiboa eta, beraz, subjektiboa nabarmentzen du. Subjektibotasun horrek hurbilketa heteropatriarkalen zurruntasuna baztertu eta indarkeriaren definizio batek behar duen malgutasuna kontuan hartzera garamatza. Stanko-k (2002) dio ezin dela oraindik ere indarkeriaren fenomenoak finkotzat, ulertutzat eta halabeharrezkotzat kontzeptualizatu. Haren definizioaren malgutasuna baliatuta baino ezin dugu indarkeria, gizarte-fenomenotzat, era sortzailean deseratu.

Bestetik, tradizionalki, indarkeria *bazterketa-logika* baten argitan definitu da, eta adierazpen muturrekoenak baino ez dira azaleratu, gehienetan, gorputzari eragiten dioten erasoekin zerikusia dutenak; hala nola bortxaketari buruzko mitoa, etxeko indarkeria esaten zaiona eta eraso fisiko oso nabarmen batzuk. Joera murriztaile horren aurrean, erresistentzia feministak *inklusio-logika* bat kontrajartzeko borroka egin du, eta adierazpen muturrekoenak auzitan jarri diren arren («oro da indarkeria» polemikoaz ari naiz), indarkeriatzat jotzen diren adierazpenen zenbatekoa zabaltzea lortu du. Horren adibide dira isiltasunak eta barreak. Emakumeek biak ala biak identifikatu dituzte beren tratu txarren harremanetako elementutzat, eta mina, umiliazioa eta mespretxua eragiteko erabiltzen ziren elementutzat (Martínez Portugal, 2019).

Azkenik, esku artean dugun lanak funtsezko beste puntu baten alde ere egin nahi du: indarkeria gizonezkoen boterearen erabilerari aurre egiten dioten emakumeen erresistentziaren testuinguruan kokatu behar da (Hester, Kelly eta Radford, 1996), eta emakumeak ez dira «erraz biktimizatzen diren objektu» gisa hartu behar (Molina Petit, 2015). Ikuspegi hori oinarri hartuz gero, jaramon egin beharko zaie emakumeen bizi-testuinguruari, haien ekintzei eta ulertzeko moduei; abusu-gertakari jakinekin borrokatu aurretik, bitartean eta ondoren. Era berean, aukera horrek gure analisi-esparrua hedatzera garamatza, hauek ere kontuan hartzeko: emakumeen erresistentzia, bizirauteko modua, bai eta haien bizipena politikoki birdefinitzeko modua ere. Horrela, ikusgai egingo da emakumeek, biktimizazio-bizipenak jasanda ere, erakutsi duten indarra (Kelly, 1988; Martínez Portugal, 2019).

3. Elementu teoriko-metodologikoak

Indarkeria sexista edo indarkeria matxistak ikuspegi feminista batetik ikertzea erantzukizun politikoz jardutea da (Biglia, 2012), eta ez du soilik eskatzen geure buruak ikertzaile eta subjektu gisa botere-harreman korapilo batean kokatzea; aitzitik, zenbait erabaki metodologiko eta praktikoa hartzera ere behartzen gaitu, teoria konprometitua sortzeko funtsezkoak. Ondoren, azalduko dut zer elementu teoriko-metodologiko iruditzen zaidan orain arte azaldukoarekiko kontsekuentea.

a) Emakumeen ahotsak erdigunean jartzea

Harreman intimoak politizatzeak (Millet, 1969) emakumeen ahotsak indarkeria sexistari buruzko ikerketen erdigunean jartzea ahalbidetu zuen. Frogatuta dago indarkeria jasan duten eta jasaten duten emakumeen ahotsak ordainezinak izan

direla eta direla fenomenoaren izaera multifazetikoa ikusgai egiteko (Stanko, 2002; Morgan eta Björket, 2006).

Ikuspegi horrek beste edozeinek baino hobeto hautematen du emakumeengan indarkeriak duen inpaktuaren hedadura, eta ikuspegi erradikalentzat hartzen da; izan ere, abiapuntu du indarkeria jasan duten emakumeen munduari buruzko iritzia eta pertzepzioa «estandar» gisa hartzea, eremu horretan autoritatea eskatzen duten beste gorputz batzuen ondoan (polizia, legeak eta erakundeak) (Walby, 1990). Bourdieuk esan bezala «generoetako batek (maskulinoak) ahalmen eta zilegitasun handiagoa» baldin badauka «bere indarra sustatzen eta, are, naturalizatzen duten botere-harremanak esanahiz janzteko eta disimulazeko» (1999; 224-225), ezagutza sortzeko orduan emakumeen ahotsetan oinarritzea ezinbestekoa da gizonen «esanahiak inposatzeko botere»ari aurre egiteko.

Adierazitako bizipenen bidez, eraso sexual eta fisiko tradizionalak eta horien definizio heteropatriarkalak gainditzen dituzten gizonengatikoko abusu eta indarkeria moduak izendatzen dituzte emakumeek, isilduta gera ez daitezten. Esaterako, lehen begiratuan identifikatzeko zailak diren indarkeria sinbolikoaren adierazpenak (Bourdieu, 2000):

Nire gaineko bere abusuen ondorio baino, kontu horiek gizarteak bikote barruan niri ematen didan rolaren ondorio dira: amaren rola, babeslearen rola, «zure traumak nireen aurretik..., zure beharrak nireen aurretik», nahiz eta burua zuri joan zaizun, gero nik oihu egin dizudalako eta horrela berdindu garelako... Hau da, barneratuta daukagun zenbait mekanismok gure ongizatearen kontra egiteko duten modua. Kontu horiek... ezin ditut gainetik kendu. Nire DNAn baleude bezala da (Haizea).

Hala ere, elkarrizketatuen ikuspegiak berak zenbait muga ditu, sistema heteropatriarkalean sozializatuak izan baitira haiek ere, eta aintzat hartu behar da muga horietan berak izango dituela metodologia kualitatiboaren bidez emakumeen esperientziak Gizarte Zientzietan txertatzeak ere. Puntu hori arazotsua da; izan ere, ez dago argi zergatik onartu behar den ikuspegi patriarkalak ez dituela emakumeen eguneroko bizipenak kutsatu, gainerako teoriak kutsatu dituen maila berean (Walby, 1990). Auzi horri buruz, hainbat egilek ohartarazi du, hain zuzen ere, emakumeen bizipen indibidual eta pertsonalak partekatzea ez dela nahikoa eraketa teorikorako, baizik eta abiapuntu izan behar dutela gure analisiak garatzeko eta indarrean diren ideiei, politika publikoei eta praktikei aurre egiteko (Kelly eta Radford 1996; Stanko, 2002; Biglia, 2012).

b) Indarkeria sexista genero-indarkerien edo indarkeria matxisten paradigmaten barruan kokatzea

Jarrai al dezakegu emakumeen aurkako indarkeriari buruz pentsatzen eta hura arautzen, genero-eraketarekin lotutako beste subjektibotasun batzuen aurkako indarkeria kontuan hartu gabe? Euskal Herriko⁴ mugimendu feministan badago

4. Indarkeriaren kontzeptualizazioarekin lotutako eztabaida eta adostasun horien adibideetako batzuk dira Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxaren Plataformaren (EHEMMP, 2016) «Repensando la violencia machista. Respuestas desde un feminismo en marcha»; 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako (2015eko martxoaren 16ko GAO); eta Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak, «Salda badago» (Durango, 2019).

nolabaiteko adostasuna indarkeria sexistari paradigma zabalago baten barruan heltzeko. Xede du, lehenik, genero-dispositibotik eratorritako beste indarkeria mota batzuk ez ikusezintzea, hala nola indarkeria transfoboa, lesbofoboa eta homofoboa, eta bigarrenik, fenomenoaren ikuspegi sistemikoa indartzea (Biglia, 2014) (EHEMMP, 2016).

Indarkeria sexista indarkerien paradigma zabalagoan kokatzea —izan *genero-indarkeriengan*, izan *indarkeria matxistengan*— emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoaren ikertzeko ikuspegi kritiko feminista dabilgun pertsonok gure gain hartu beharreko arduraren da. Hala ere, eta ikuspegi hori abiapuntu hartuta, akats bat da tipologia horietako bakoitza berriro ere pluralean izendatzea, zenbait espaziotan egiten ari diren moduan (indarkeria sexistak, indarkeria transfoboak, lesbofoboak).

Fenomenoaren izendatzeko modu horrek zaildu egiten du ondo bereiztea indarkeria hori gauzatzeko *mekanismoak* eta horien *ondorio* edo *emaitza* den indarkeria. Bereizketa hori ez egiteak analisi-gaitasuna kentzen digu: indarkeria botere-harremanen testuinguruan eratzen denez, ez era isolatuan, hain ikusgarriak ez diren mekanismoak daude, esaterako, *barrea*, *isiltasuna*, *lehenengo gauza bat eta gero kontrakoa esatea*, *hitzak*, *parrandan egonda mezua bidaltzea eta galdetzea* «*nola zoaz gaueko 12etan?*»⁵... Horiek guztiak ez dira berez biolentoak, baina horien bidez indarkeria eragin daiteke. Despareko botere-egitura baten testuinguruan kokatuta bilakatzen dira indarkeriaz aritzeko tresna.

Bileretan hitza hartzen nuenetan koordinatzaileak txantxak eta txisteak egiten zituen hitz egiten nuen bitartean, eta bulegoan matxismoa zegoela iradokitzen ausartu nintzen batean, zakar eten zidan, esanez ezin zitzaidala halakorik esatea bururatu ere, ideiarik ere ez nuela matxismoa zer den, eta Salvadorrera joan behar nukeela hango emakumeak nola dauden ikustera, hori bai, hori badela diskriminazioa (Sofía).

Txantxek, karikatuzazioek edo txisteek xede dute aldarrikapen feminista eta diskriminazioaren zein azpiko botere-harremanen salaketa alboko, marjinal edo balio gutxiko kontutzat baztertzea; eta hala, horien alde egiten duten pertsonak eta kolektiboak sinesgarritasun txikiko estereotipo bilakatzen dira. Nola ulertarazi barrea indarkeria izan daitekeela, barrea politikoa izan daitekeela? Nire helburua indarkeria sexistaren adierazpen ikusezinenak zein diren eta zergatik zehaztea izanik, azaldu behar dut zer parametroren arabera, edo zer mekanismoaren bidez bilakatzen diren abusu-adierazpen bat gehiago barrea, isiltasunak, txantxak...

Azkenik, mekanismo horiek *indarkeriatzat* kategorizatzen ditugunean, errazago irristatzen gara indarkeriaren kontzeptualizazioari buruzko egungo eztabaidetako «*dena da indarkeria*» horretara (Esteban, 2017). Fenomenoaren alderdi subjektiboak eta erlatibistak bereziki arduratsuak izatera behartzen gaitu. Emaitza —edo produktua— zer prozesutatik datorren azaldu gabe plazaratuta, ez diogu mesede egiten diskurtso eta aldarrikapen politikoari. Nire aukera izan da emakumeen aurkako indarkeria edo indarkeria sexista azaltzeko, emakumeen gaineko kontrolari eta botereari eusteko erabiltzen diren mekanismoetako batzuk baliatzea (hizkera

5. Narratibetan indarkeriatzat identifikatu diren mekanismoak.

eta isiltasuna, des-ahalduntzea, maitasun erromantikoaren mitoa, *gaslighting*a, sexualitatearen gaineko kontrola, eraso sexualak, eraso fisikoak... besteak beste).

c) *Agentzia aintzatestea eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeen erresistentzia-adierazpenak identifikatzea*

Emakumeok egunero jasaten dugu gure gain erabiltzen den indarkeria. Egiturazko indarkeriaren adierazpen guztien aurrean —*everyday violence* (Stanko, 1993) edo *everyday terrorism* (Pain, 2014)—, ez ditugu gure desioak eta helburuak baztertzeko, debekatu zaizkigun espazioak hartu nahiari eusten diogu, bidezko tratua edo, sinpleki, tratu on bat eskatzen dugu. Horiek horrela, funtezkoa da gure ikerketen esparrua zabaltzea, emakumeok abusuari nola aurre egiten diogun, hartatik bizirik nola ateratzen garen eta, are, hura nola politizatzen dugun ere kontuan hartzeko.

Azken aldiko erresistentziari buruzko ikerketak (*Resistance studies*) gizarte-zientzietan gorabidean dagoen ikerketa-alorra dira gaur egun. Alor horretan hainbat kontzeptu eta definizio ematen dira erresistentzia-ekintzat zer ekintza hartzen diren edo har daitezkeen zehazteko, eta askotariko moduetan erabiltzen dira, zehaztasun handirik gabe (Johansson eta Vinthagen, 2014; Baaz *et al.*, 2016). Kontzeptuari buruzko literatura berrikusi ondoren, Hollander-ek eta Einwohner-ek (2004) desadostasun ugari aurkitu zuten, eta bi adostasun puntu baino ez: (i) erresistentzia-ekintza egiten duen banakoaren edo subjektuaren aldetik nolabaiteko agentzia eskatzen duen ekintza da, eta (ii) erresistentzia beti boterearen aurka eratzen da.

James Scott-ek 1985ean *everyday resistance* kontzeptua erabili zuenetik —zehazki klase-borroratik eratorritako ekintzez ari zen—, fenomenoari buruzko ikerketetako askok ikuspegi hori hartu dute oinarri: hau da, *erresistentzia* egileak «infra-politika» esaten dionaren baitako egitate informaltzat eta antolatu gabetzat jotzen duen ikuspuntua. Dena dela, lehen nozio horretatik interesatzen zaigun alderdia da fenomeno hainbat ekintza nagusiki informalean (lehen begiratuan ikusten zailak eta ez dutenak zertan konfrontaziozkoak izan) multzotzat ulertzen duela.

Ildo berean, Johansson-ek eta Vinthagen-ek (2014) kontzeptuak ematen dituen aukerak esploratu dituzte eta haietan sakondu dute; horrek ez du esan nahi —are, esplizituki ekidin dute— asmoa definizio bakar bat ematea denik. Horren ordez, lau premisa ezarri dituzte kontzeptuaren gainean: (i) *eguneroko erresistentzia* edo *everyday resistance* deritzona praktika bat da (eta ez kontzientzia politiko jakin baten ondorioa, Scottek baieztatu zuen eran), (ii) historikoki boterearekin korapilatuta dago (*everyday power*), (iii) beste botere-ardatz batzuekin intersekzioan aztertu behar da (ez botere bakar baten aurkakotzat), (iv) heterogeneoa da eta ez da halabeharrezkoa, gerta daiteke edo ez; izan ere, testuinguruaren eta egoeren arabera aldatu egiten da (hots, ez dago estrategia unibertsal bat edo ekintza modu koherente bat).

Gure proposamenean, «erresistentzia» *agentziaren* ikuspegitik ulertzearen alde egiten dugu, gizonen boterearekiko aurkaritza aktiboa eta borroka esan nahi duelako, edo harekin kooperatzeari edo hari men egiteari uko egitea: hau da, ekintza edo mekanismo multzoa da, mendekotasun-estatus bat onartzearen aurkako jarrera argia adierazten duena.

Istilu horiek kontzientzia txarra eta arbuioa eragiten zidaten. Kontzientzia txarra zer egoeratan nengoen ikusten nuelako, eta niri ez zitzaidalako ateratzen ez maitatzea, ez laguntzea, berak nahi bezala, bere desioak asetzea. Eta arbuioa ez nuelako izan nahi ez bere erizaina, ez bere zaintzailea, eta berak ez zidalako zertan ezer eskatu (Maren).

Bestalde, abusu-bizipena politizatzeak hura ikuspegi politikoan txertatzea dakar; hau da, botere-harremanen sistema baten (non emakumeak kolektibo zapaldukoak diren) elementu eta ondorio gisa hartzea. Ikuspegi politikoan barneratzeke lehen pausoa gertatutakoa kontzeptu politikoaren bidez kontzeptualizatzea da; Celia Amorós-ek (2008) azaldu duen eran, *kontzeptualizatzea politizatzea baita*. Abusua *politizatu* ahal izateko, beharrezkoa da indarkeria guk geuk izendatzea eta esanahi kolektiboak ekoitzi dituen diskurtso soziopolitiko batera jotzeko ahalmena izatea.

Pisukide batek lotu zituen egun batean hari-mutur guztiak eta hura guztia eraso sexistatzat definitu zuen. Beharbada denok genekien, baina batzuetan idatzita ikusi behar duzu ohartzeko, ez? Ba berak hori egin zuen (Miren).

Azkenik, emakumeak aktore aktibotzat erdigunean jartzeak auzitan jartzen du indarkeria sexistaren ondorio guztiak negatiboak direla eta izango direla dioen ohiko onarpena (batzuetan baita inplizitua ere). Horrela, ez dugu baztertuko ondorio negatibo horiei aurre egiteko prozesuak, epe luzera, emaitza positiboak ere eman ahal izatea.

d) Beste zapalkuntza-ardatz batzuekiko intersektzioa kontuan hartzea

Dobashek eta Dobashek (1998) «testuinguru» kontzeptua azpimarratzen dute indarkeria esanahiz janzteko elementu nagusitzat. Definizio hau darabilte: «Indarkeria produktu kulturaltzat jotzen da, askotariko gizarte-testuingurutan kokatutako banakoak adierazpide dituen» (1998: 4). Asmo esentzialistei iskin egin, eta definizioa berariaz irekita uzten da, kontuan har ditzan bai indarkeriak performatzeko dituen askotariko moduak, bai indarkeriak emakumeei nola eragiten dien, haien arrazaren, etnizitatearen, kulturaren, klasearen, adinaren, sexualitatearen, funtzionaltasunaren/disfuntzionaltasunaren... arabera.

Askotariko zapalkuntza-ardatzen intersektzioan, nabarmen aldatzen da indarkeria hautemateko modua eta hari aurre egiteko erantzuna. Askotariko esperientzia horiek bildu eta aztertu behar dira informazio zehatzagoa edukitzeko, indarkeria ugaltzeko eta legitimatzeko baldintzak zein diren jakite aldera (Crenshaw, 2012). Era berean, beharrezkoa da ekoizitako ezagutza kokatzea, gure analisien mugak esplizitatzea eta emaitzak ez aurkeztea unibertsaliza daitezkeen emaitzatzat. Ez da kontrizio-ariketa bat, baizik eta epistemologia feministetako planteamendu batekin bat egitea; hausnarketa lan kualitatibo kritikoen ezinbesteko elementutzat jotzen duenarekin, hain justu (Haraway, 1995; Biglia, 2012; Gandarias, 2014).

Lerro hauen atzean dagoen ikerketak duen mugetako bat da, hain zuzen ere, bertan, bere kontakizunaren bidez, zer emakume-tipologiak parte hartu duen. Ez da kasualitatea, ikertzailea emakume zuria, Euskal Herrian errotoa, goi-mailako ikasketaduna, dibertsitate funtzionalik gabea eta heterosexuala izanik, parte-

hartaileek ere ezaugarri horiek guztiak izatea. Horrek kanpoan utzi ditu emakume ekintzaileen arteko beste profil batzuk, eta ikerketak ez du islatzen horien bizi-espereintzia —zeharkatzen duten berezitasunek markatua (etnia eta/edo kultura, sexu-joera ez-heteromormatiboa, askotariko ikasketa-mailak, aniztasun funtzionala, adina...)—. Berezitasun horiek hainbat gizarte-diskriminazio eta -desparekotasun maila eratzeko joera dute, eta, adierazi berri dugun eran, indarkeria adierazteko eta bizitzeko modua baldintzatzen dute. Ikerketak, beraz, denboran, espazioan eta subjektuei dagokienez mugatua den kasuistika jakin baten berri eman nahi du.

e) *Indarkeria continuum eta prozesu gisa kontzeptualizatzea*

Indarkeriaren continuum baten ideia Kelly-k (1988) kontzeptualizatu zuen. Helburu zuen emakumeek gizonen aldetiko *abusu* gisa identifikatzen duten adierazpenen multzo konplexua eta zabala ikusaraztea. «Abusuaren hierarkia» bat eratzea, erantsi zuen egileak, desgokia da analisi feminista bat egiteko.

Gaur egun, literatura feministan adostasun zabala dago *continuum* kontzeptuari dagokionez, ahalmena duenez bere baitan hartzeko ez soilik indarkeriatzat argi eta garbi identifikatzen diren adierazpenak, baizik eta baita emakumeak bigarren mailako herritartzat jo eta horien zapalkuntza indartzen eta naturalizatzen duten abusuzko portaera guztiak ere (Boesten eta Wilding, 2015). Gainera, tratu txarrak jasan dituzten emakumeek berek baliozkotzat jo dute hurbilketa modu hori, beren esperieintzia azaltzeko eta ezagutarazteko haren baliagarritasuna berretsi baitute (Kelly eta Radford, 1996; Salvage, 2016).

Indarkeria continuum bat dela pentsatzen badugu, kontzepturako hurbilketetan, prozesu bati heltzen dioguneko ikuspuntua izan beharko dugu. Prozesu aktiboa eta oso arriskutsua da esku artean duguna, eta gizonen aldetiko indarkeriaren erabilerarekin batera, beste kontrol eta mendekotasun modu batzuk dakartza berekin. Bazterketa-ekintza txikiak, portaera aldakorak, gaitzespen sotil baina etengabeak izaten dira, indarkeriatzat nekez identifikagarriak, sistema sexista baten barruan eta metatze-patroi baten testuinguruan irakurtzen ez badira:

Isolatuta egoteak, gehi abandonuaren mehatxuak eta mendekotasun-harreman toxiko batek, eragin zuen nire bizitzaren muina izatea pertsona hori zoriontsu egitea eta bere onarpena lortzea. Egun batez, esnatu berritan, esan zidan: «Ez nauzu zoriontsu egiten». Lur jota utzi ninduen. Hori zen ni zigortzeko bere modua (Estela).

Indarkeria prozesu moduan kontzeptualizatzen badugu, ulertzeko aukera izango dugu emakume erasotuek nola «normaltzat» jo ditzaketen muturrekoak diren portaerak (Lundgren, 2015), edo nola era isolatuan behatuta kaltegabeak diruditen zenbait gertaera ekintza biolento izan daitezkeen.

f) *Fenomenora diziplina anitzetatik hurbiltzea*

Almudena Hernandok, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko (UCM) irakasleak, bere hitzaldietako bat hasteko aipamen bat egin zion diziplina akademikoaren ezaugarri bati; botere-gailu izateari, hain zuzen. Hernandok, aipatutako unibertsitateko Historiaurre Departamentuko irakasle entzutetsu eta UCMko Ikerketa Feministen

Institutuko kideak, kontatu zuen historiaren materialtasunetik ikasteko hezia izan dela, nahiz eta berari interesatzen zaiona eta haren ikerketak gidatzen dituen orainaldiaren immaterialtasuna izan. Segidan, Hernandok azaldu zuen bere analisisiek ez dutela diziplina batean abiapuntu hartzen, eta bere burua *diziplinartekotzat* ez ezik, *diziplinarik gabekotzat* jo zuen. «Nire ustez —dio—, ez dago gizakia ulertzea baino ezer konplexuagorik, eta horretarako, norbaitek garatutako edozein optikatatik ekin behar zaio. Diziplina akademikoak botere-gailuak direla uste dut⁶».

Idea ezinago iradokitzaile horrek gure ustea indartzen du: gizarte-fenomenoak —eta, bereziki, esku artean duguna— ezin dira ikuspegi edo diziplina bakar batetik azaldu; aitzitik, diziplina barneko jardunbideen aurkako desobedientzia aktiboan oinarrituta heldu behar zaie⁷. Jarrera hori ikerketa positibisten ondorioz sortzen diren botere-harremanekin hausteko modu bat gehiago da, epistemologia feministaren postulatuekin bat etorrira.

Dobashek eta Dobashek (1998) ikergaiaren lehen eklosioaren ondoren egiten diren diziplina barneko lanen zurruntasuna kritikatzeko dute. Askotariko diziplinen arteko «mesfidantza» horrek haiek ez aintzat hartzeko ahalegin hutsal bat ekarri du, eta, are, baita analisi zientifiko «puru» izan nahi duen horretatik baztertzea ere. Egileen aburuz, dinamika horrek indarkeriaren ulermen teoriko eta ezagutza enpirikoaren garapen handiagoa eta emankorragoa eragozten du, baita indarkeria desagerrarazteko bidean jarriko gaituzten hari buruzko ikuspegi berrien bilaketarena ere. Testuinguru horretan, ideia eta ebidentzia berriek gero eta estuagoa eta aldagaitzagoa den ideia eta froga autorreferentzialen zirkuluan gora egiteko borroka egin behar dute. Ikerketa bideratzeko modu antzu horren ordez, Dobashek eta Dobashek «mugaz haraindiko» diziplinarteko enkontruak proposatzen dituzte, askotariko diziplinetan lortutako aurrerapenak era produktiboan erabiliko dituztenak (*cross-fertilization*).

4. Ondorioak

Jakintza kolektiboak sortzeko moduen azpian diren botere-logika desparekoei aurre egiteko beharrea datza genero-indarkeriari eta indarkeria sexistari buruzko ikerketek ikuspegi feminista izatearen garrantzia. Horregatik da garrantzitsua indarkeriaren eta haren testuinguru performatiboen azterketan sakontzea, ezagutzaren justifikazio, baliozkotze eta ezagutza-ekoizpenerako estrategien bidez. Eta estrategia horiek gai izan beharko dute praxi eta teoria feminista garatzen ari diren proposamenak biltzeko eta zuzentzeko.

Indarkeriari buruzko ikerketetan emakumeen ahotsak erdigunean jartzeak —gure ikuspegia zabaltzeko eta indarkeriari aurre egiteko, erresistitzeko eta bizirauteko moduak ere kontuan hartuta— ikerketa eta ekoizpen teoriko emankorra ekarri du,

6. «Género e identidad. La importancia de los vínculos y la comunidad en la construcción de lo humano» Conferencia Magistral Noviembre Feminista (2016/11/17). Hemen ikusgai: <<https://www.youtube.com/watch?v=YVfNzJ4Ziu0>>.

7. Genero-indarkeria esaten zaiona ikertzen eta aztertzen duen literatura akademikoaren lehen azterketan, hainbat hurbilketa aurkitu nituen, eta bi irizpideren arabera sailkatzea ausartu naiz. Lehenengo irizpidea da non idatzi den: lekua edo erakundea. Bigarrena, zer diziplinak zehazten eta zeharkatzen duen edo duten haren edukia.

bai eta hegemoniaren aurkako borroka politikorako hainbat estrategia ere. Abiapuntu horri esker, hiru gauza lortu dira: diskurtso heteropatriarkalak ikusezindutako mekanismoak eta adierazpenak azalera, fenomenoaren analisia konplexuagoa izatea, inguratzen duen erlatibismoan sakonduta, eta emakumeak abusuen mendeko biktima pasibotzat irudikatzen dituen gizarte-iruditeria hegemonikoa apurtzea. Horiek horrela, indarkeria sexistaren ezagutzan aurrera egiteko moduetako bat da, abusu-harreman baten ondorengo askotariko ibilbideei argia emate aldera, erresistentzia- eta biziraupen-prozesuetan zer elementuk eta eragilek parte hartzen duten aztertzea.

Eztabaida politikoei eta fenomenoaren garapen kontzeptuari esker, sexu-genero-sexualitate sistematik eratorritako indarkerien (esaterako, genero-indarkeria eta indarkeria matxista) paradigma zabalagoan kokatu ahal izan dugu emakumeen aurkako indarkeria. Premisa teoriko (eta politiko) horren argitan, genero-harremanak, sistema heteropatriarkala eta haren indarkeriaren erabilera sakonago, doiago eta zabalago uler daitezke, eta ondorioz, ikerketa-aukerak eta kasuistikak biderka daitezke.

Ontzat ematen badugu askotariko zapalkuntza-ardatzen interseksioak abusu espezifikoa eta askotariko bizipenak sortzen dituela, hauek ere egin behar ditugu: batetik, gure ikerketen mugak birpentsatu behar ditugu, fenomenoaren alderdi erlatibista kontuan hartuta; bigarrenik, definizio malguak erabili behar ditugu, *ad hoc* analisiak egiteko aukera emango digutenak, eta hirugarrenik, gogoeta egin behar dugu, ikertzaile gisa geure buruak kokatzeko eta indarkeriari buruzko gure lan-prozesuak eta jakintza-sorkuntza inplementatzerakoan jokoan sartzen diren botere-logikak ulertzeko.

Abusu-harremanak emakumeen subjektibotasuna prekarizatzen duten prozesu gisa ulertzeak adierazpenen continuum bat badela pentsatzea eskatzen du. Continuum horrek hartuko litzuke bai ezkutuko ekintza sistematikoak, bai bortizkeriatzat erraz identifikatzen diren eraso fisikoak. Adierazpen horiek guztiak erregistratzea, ikusgai egitea eta botere-harremanen sistema baten testuinguruan jartzea lagungarri zaigu abusu-harremanak hobeto azaltzeko eta askoz azkarrago hautemateko noiz egon gaitezkeen haletako batean murgilduta.

Azkenik, ikerlan batek bere helburuak lortzeko eta eraginkorra izateko, beharrezkoa da askotariko ikuspegi teorikoak edukitzea, ez soilik diziplinartekoak. Jakina, lan askoz konplexuagoa, zailagoa eta ausartagoa da gure argudioak ikuspegi analitiko bakar batean edo munduari begiratzeko modu bakar batean txertatzea baino. Baina gizarte-fenomenoak diziplina akademiko bakar bat edo pentsamendu-korronte bakar bat oinarri hartuta azal daitezkeela pentsatzea nolabaiteko totalitarismo epistemologikoa da.

5. Bibliografia

Amorós, Celia *et al.* (2008): «Conceptualizar es politizar», in Patricia Laurenzo Copello, María Luisa Maqueda Abreu eta Ana María Rubio Castro (koor.), *Género, Violencia y Derecho*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 15-26.

- Baaz, Mikael; Lilja, Mona; Shulz, Michael eta Vintaghen, Stellan (2016): «Defining and Analyzing “Resistance”: Possible Entrances to the Study of Subversive Practices», *Alternatives: Global, Local, Political*, 41(3), 137-153. Hemen eskuragai: <https://www.academia.edu/35246423/Defining_and_Analyzing_Resistance_Possible_Entrances_to_the_Study_of_Subversive_Practices> (2020ko apirilaren 20an kontsultatua).
- Biglia, Barbara (2012): «Corporeizando la epistemología feminista: investigación activista feminista», in Martha Lievano Franco eta Marina Duque Mora (konp.), *Subjetivación femenina: Investigación estrategias y dispositivos críticos*, UANL, Mexiko, 195-229. Hemen eskuragai: <https://www.academia.edu/3197857/Corporeizando_la_epistemolog%C3%ADa_feminista_investigaci%C3%B3n_activista_feminista> (2020ko apirilaren 20an kontsultatua).
- , (2014): «Avances, dilemas y retos de las epistemologías feministas en la investigación social», in Irantzu Mendia, Marta Luxán, Matxalen Legarreta *et al.* (koor.), *Otras formas de (Re)conocer*, UPV/EHU eta SimREF, Bilbo, 21-44. Hemen eskuragai: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/269/Otras_formas_de_reconocer.pdf?1488539836> (2020ko apirilaren 20an kontsultatua).
- Boesten, J. eta Wilding, P. (2015): «Transformative gender justice: Setting an Agenda», *Women’s Studies International Forum*, 51, 75-80. doi: <https://doi.org/10.1016/j.wsif.2014.11.001>
- Bourdieu, Pierre (2000): *La dominación masculina*, Anagrama,artzelona.
- , (1999): *Meditaciones Pascalianas*, Anagrama,artzelona.
- Casado Aparicio, Elena (1999): «A vueltas con el sujeto del feminismo», *Política y Sociedad*, 30, 73-91. Hemen eskuragai: <<https://revistas.ucm.es/index.php/POSO/article/view/POSO9999130073A>> (2020ko apirilaren 20an kontsultatua).
- Cardona Curcó, Irene (2015): *Aproximación al papel de las mujeres dentro de los grupos armados de la Transacción*, Deskontrol,artzelona.
- Crenshaw, Kimberlé (2012): «From Private Violence to Mass Incarceration: Thinking Intersectionally About Women, Race, and Social Control», *UCLA Law Review*, 59, 1.418-1.472. Hemen eskuragai: <<https://www.uclalawreview.org/pdf/59-6-1.pdf>> (2020ko apirilaren 20an kontsultatua).
- Dobash, Rebeca eta Dobash, Russel (1998): «Cross-Border Encounters: Challenges and Opportunities», in Rebeca Dobash eta Russel Dobash (ed.), *Rethinking violence against women*, Sage Publications, 1-16.
- Dominguez Sanchez Pinilla, Mario eta Davila Legeren, Andrés (2008): «La práctica conversacional del grupo de discusión: jóvenes, ciudadanía y menos derechos», Angel J. Gordo eta Araceli Serrano (koor.), *Estrategias y prácticas cualitativas de investigación social*, Pearson-Prentice Hall, Madril, 97-127.
- Downes, Julia; Hanson, Karis eta Hudson, Rebeca (2016): *Salvage: Gendered violence in activist communities*, Footprinters Workers Co-op, Leeds. Hemen eskuragai: <<http://oro.open.ac.uk/47582/>> (2020ko apirilaren 20an kontsultatua).
- Esteban, Mari Luz (2017): *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*, Susa, Bilbo.
- Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxaren Plataforma (2013): «Indarkeria sexistari aurre egiteko protokoloa». Hemen eskuragai: <http://emakumeenmundumartxa.eus/fitxategiak/media/2015/f1a0e66fb0529054ab98e9c76d6b6bf66indarkeria_sexistaren_kontrako_protokoloa.pdf>.Friedman, Jaclyn eta Valentí, Jessica (2008): *Yes means Yes. Visions of female sexual power and a world without rape*, Seal Press, Berkley.
- Gandarias, Itziar eta Garcia, Nagore (2014): «Producciones narrativas: una propuesta metodológica para la investigación feminista», in Irantzu Mendia, Marta Luxán,

- Matxalen Legarreta *et al.* (koor.), *Otras formas de (Re)conocer*, UPV/EHU eta SimREF, Bilbo, 97-110. Hemen eskuragai: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/269/Otras_formas_de_reconocer.pdf?1488539836> (2020ko apirilaren 20an kontsultatua)
- Gandarias Goikoetxea, Itziar (2014): «Habitare las incomodidades en investigaciones feministas y activistas desde una práctica reflexiva», *Athenea Digital*, 14(4), 289-304. doi: <http://dx.doi.org/10.5565/rev/athenea.1489>
- Haraway, Donna (1995): *Ciencia, Cyborgs y Mujeres: La reinención de la naturaleza*, Cátedra, Madril.
- Hercus, Cheryl (2005): *Stepping out of line. Becoming and being feminist*, Routledge, New York.
- Hester, Marianne; Kelly, Liz eta Radford, Jill (1996): *Women, Violence and Male power. Feminist activism, research and practice*, Open University Press, Buckinham.
- Hester, Marianne (2015): «Theorizing male power and violence against women», in Nadia Aghtae eta Geetanjali Gangoli (koor.), *Understanding Gender Based Violence. National and International Context*, Routledge, New York. doi: <https://doi.org/10.4324/9780203799147>
- Hollander, Jocelyn A. eta Einwohner Rachel L. (2004): «Conceptualizing Resistance», *Sociological Forum*. 19-4, 533-554. Hemen eskuragai: <<http://www.resistancestudies.org/files/Hollander.pdf>> (2020ko apirilaren 20an kontsultatua).
- Johansson Anna eta Vinthagen, Stellan (2014): «Dimensions of Everyday Resistance: An Analytical Framework», *Critical Sociology*, 1-19.
- Johansson, A. & Vinthagen, S. (2016): «Dimensions of Everyday Resistance: An Analytical Framework», *Critical Sociology*, 42(3), 417-435. doi: <https://doi.org/10.1177/0896920514524604>
- Kelly, Liz (1988): *Surviving Sexual Violence*, Polity Press, Cambridge.
- Martínez Portugal, Tania (2015): *La violencia sexista en colectividades sociales y políticas de izquierdas: casos y procesos de resiliencia de mujeres activistas vascas*, Master Amaierako Lana, UPV/EHU, Espainia.
- , (2019): *Narrativas de mujeres sobre violencia sexista en las comunidades activistas del País Vasco*, Doktore Tesia, UPV/EHU, Espainia.
- , (2020): «Haciendo frente a las epistemologías heteropatriarcales: elementos teórico-metodológicos para un análisis feminista de la violencia contra las mujeres», *Investigaciones Feministas*, 11(2), 333-342. <https://doi.org/10.5209/infe.65874>
- Molina Petit, Cristina (2015): «La construcción del cuerpo femenino como victimizable y su necesaria reconstrucción frente a la violencia machista», *Investigaciones feministas*, 6, 69-84. doi: https://doi.org/10.5209/rev_INFE.2015.v6.51380
- Morgan, Karen eta Björket, Suruchi Thapar (2006): «“I’d rather you’d lay me on the floor and start kicking me” Understanding symbolic violence in everyday life», *Women’s Studies International Forum*, 29, 441-452. doi: <https://doi.org/10.1016/j.wsif.2006.07.002>
- Osborne, Raquel (2009): *Apuntes sobre violencia de género*, Bellaterra, Bartzelona.
- Pain, Rachel (2014): «Everyday terrorism: Connecting domestic violence and global terrorism», *Progress in Human Geography*, 38, 531-550. doi: <https://doi.org/10.1177/0309132513512231>
- Scott, James (1985): *Weapons of the Weak. Everyday Forms of Peasant Resistance*, Yale University Press, New Heaven.
- Stanko, Elisabeth A. (ed.) (2002): *The Meanings of Violence*, Routledge, New York.
- Walby, Sylvia (1990): *Theorizing Patriarchy*, Basil Blackwell, Oxford.

